

MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2023KO OTSAILA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 0,6 egin dute behera, 2023ko otsailean

Aurreko hilarekin alderatuta, 2023ko urtarrilarekin, salmentek % 1,0 egin dute behera

Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, 2023ko otsailean, % 0,6ko jaitsiera izan dute, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, prezio finkoetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, Eustatek emandako datuen arabera.

Aurreko hilarekin alderatuta, 2023ko urtarrilarekin, eta urtaro-eragin egokiak kenduta, prezio finkoetako salmentek % 1,0 egin dute behera otsailean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Hilen arteko terminoetan, salmentek behera egin dute sektore bietan, bai *Elikaduran* bai *Gainerako produktuetan*, % 0,5 eta % 1,8, hurrenez hurren.

Urte arteko terminoetan, 2023ko otsailean, 2022ko otsailaren aldean, prezio finkoetako salmenten bilakaera negatiboa izan da bi sektoreetan; *Elikaduran* beherakada % 0,4koa izan da eta *Gainerako produktuetan*, % 1,0ekoa.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2023

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,6	-1,0	0,9
Araba/Álava	-6,1	-2,2	-3,4
Bizkaia	0,5	-1,4	2,5
Gipuzkoa	-0,1	0,3	0,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-0,4	-0,5	-0,8
Gainerako produktuak	-1,0	-1,8	4,0
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	4,0	0,1	3,8

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2023ko Martxoaren 27a

Iturria: Eustat, Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek gora egin dute % 0,5 Bizkaian, urte arteko terminoetan, 2023ko otsailean. Arabaren eta Gipuzkoaren kasuan, berriz, % 6,1 eta % 0,1 egin dute behera, hurrenez hurren, prezio finkoetan eta lan-egutegiko termino homogeneoetan.

2023ko urtarilaren aldean, alegia, hilen arteko terminoetan, salmentek % 0,3 egin dute gora Gipuzkoan, eta, Araban eta Bizkaian, berriz, % 2,2 eta % 1,4 behera, hurrenez hurren.

Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako landun kopuruak % 4,0 egin du gora, 2022ko otsailarekin alderatuta. Hilen arteko terminoetan, azkenik, pertsonalaren indizeak % 0,1 egin du gora.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta, hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietan eta elikadura-kate handietan merkataritza-indizea prestatzen elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea **% 100eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62